# HARREMANAK

Guk erabiliko dugun harremana, pertsonala izango da. Guk gure bezeroari ahalik eta errazago utziko diogu gure produktua eros dezan. Guk nahi adina informazio dugu erakusgarri gure bezeroei emateko, ostera gure produktua erosteko. Bezeroak gurekin komunikatzeko, hainbat modu edukiko ditu:

- Telefonoa. Guk gure web gunean, gurekin komunikatzeko telefono bat jarriko dugu. Honekin gure kideetako batekin hitz egiteko aukera izango duzu pertsonalki.

- Webgunea. Webgunetik, korreoa, telefonoa… eskuragarri edukiko du edonork. Webgunetik kontaktatuz gero autozerbitzu edo zerbitzu automatizatua izango da.

- Dendak. Gure produktua saltzeko dendak egongo dira, zeren eta, gure produktua, Forum Sport, Decathlon eta horrelako hainbat lekuetan egongo da. Beraz bertako enkargatuek produktuari buruz informazioa emango dute. Salgai dauden lekuetan laguntza pertsonala emango da.

Guk bezero berriak ekartzeko, tarifa berriak sartzea pentsatu dugu eta orain ditugunak gurekin jarraitzeko tarifak hobetzea edo beste modu bateko tarifak eskaintzea, horrela bezeroa gustura edukitzeko. Gure produktua erosi nahi duen edonork bi gauz egin ditzake:

- Dendara joan eta produktua bertatik erosi.

- Edota, webgunetik enkargatu eta horrela ez joan behar izatea zu produktuaren bila.

Guri iruditzen zaigu, bezeroak beti arrazoi duenez eta beraiek gustura egotea nahi dugunez, produktu erosi eta gero, hurrengo produktuarekiko deskontu bat egitea adibidez. Honekin esan nahi duguna, hainbat eskaintza egin genetzazkela bezeroak gurekin jarraitzeko. Honekin bezero bakoitzari zerbitzu pertsonalizatu bat jarri nahiko genioke.

Orduan, guk hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu eta guk bezeroari ondoen datorkiona nahi dugu.